

TREBAKUNTZA 2017-11: ERDARAKADAK IV

Udal idatzi askotan erdarakadak sartzen dira, hau da, gaztelaniatik hartutako hitzak, esamoldeak eta abar euskarara ekartzen dira, euskarazko hitz edo esamolde jatorrak baztertuta. Gaurko hau erdarakadei buruzko laugarren fitxa da.

OHARRA: *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

1. * Soldata igoera eskatzen ibili da **urte luzeetan**.
2. * Mendian **zehir** ibili ginen.
3. * Atentzioa **deitu** zidan alkatearen eta idazkariaren arteko eztabaidak.
4. * Arkitekto **bezala** ibili da lanean azken urteotan, eta esperientzia handia dauka.
5. * Uda garaia datorrela eta, ilea moztu **naiz**.
6. * Atzoko bileran oso aktibo ikusi **nizun**.

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Gaztelaniazko “largos años” esamoldearen kalkoa da, baina euskaraz “luzaro/urte askoan/hainbat urtetan” edo antzekoak dira jatorragoak.

Ad. Soldata igoera eskatzen ibili da hainbat urtetan/urte askoan.

2. Gaztelaniazko “por el monte” esamoldearen kalkoa da. Euskaraz berez ez dago “zehir” horren beharrik.

Ad. Mendian ibili ginen.

3. Gaztelaniazko “llamar la atención” esamoldearen kalkoa da. Euskaraz “atentzioa eman” da egokia.

Udalerr i Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Ad. Atentzioa eman zidan alkatearen eta idazkariaren arteko eztabaidak.

4. Gaztelaniazko “trabajar como” esamoldearen kalkoa da.

Ad. Arkitekto ibili da lanean azken urteotan, eta esperientzia handia dauka.

5. Gaztelaniazko “me he cortado el pelo” esamoldearen kalkoa da. Euskaraz ez da zuzena.

Ad. Uda garaia datorrela eta, ilea moztu didate.

6. Gaztelaniazko “te ví” esamoldea itzultzerakoan sortzen zaigu arazo hau, NOR-NORK kasua NOR-NORI-NORK kasuarekin nahastean.

Ad. Atzoko bileran oso aktibo ikusi zintudan.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99